


ADELA Araba (Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Federazioa)



K/ Vicente Abreu margolaria, 7 behea

01008 Vitoria-Gasteiz

945 22 97 65

araba@adelaeuskaHerria.com / www.adelaeuskaHerria.com

ELA (Alboko Esklerosi Amiotrofikoa) gaixotasun neuromuskularra, endekapenezkoa eta progresiboa da. Ez da bere etiologia ezagutzen, eta gaixotasun larrietako bat da, eragiten dituen ondorioengatik, eta edozein adinetan ager daitekeelako.

ADELA EUSKAL HERRIA (ADELA EH) Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren (ELA) Euskal Herriko Elkarten Federazioa da, eta Adela Araba, Adela Bizkaia eta Adela Gipuzkoa probintzia-elkarteek osatzen dute. ELA gertutik edo pertsonalki bizi duten guztiei ahotsa ematea du helburu eta Osakidetzaren laguntza neurologiko zentralizatua lortzea, laguntza medikoa, fisioterapeutak, logopedak eta aholkularitza psikologikoa uztartuz. Era berean, laguntza teknikoetarako babesa lortzea eta ELAren eraginpeko pertsonen bizi hobetzeko era guztietako ekintzak sustatzea dute helburu.

ADELAk harrera-, informazio-, orientazio- eta aholkularitza-lanak egiten ditu ELAk jotako pertsonentzat eta haien familietako pertsonentzat. Gaixoak artatzen dituzten profesionalen koordinazioan lan egiten dute, jarraipen-lana eginez eta senideentzako auto-laguntzako taldeak antolatuz, eta behar dituztenentzako laguntza teknikoak mailegatuz.

Garrantzitsua da, halaber, gaiari buruzko informazioa hedatzeko eta gizartea sensibilizatzeko egiten duten lana, besteak beste, hitzaldiak, ELAren Munduko Eguna,

aldizkariaren edizioa, etab.

realizan mediante charlas, celebración del Día Mundial de la ELA, edición de la revista, etc.

Fundación Vital Fundazioaren lankidetz

Adelarekiko lankidetz 2005ean hasi zen, garai hartako Gasteizko eta Arabako Aurrezki Kutxak sinatutako lankidetz-hitzarmen baten bidez, "Irispcom QG 2SH Sistemaren bidezko ikuskera zuen ekipo bat" finantzatzeko, ELAk jotako pertsoneri laguntzeko.

Erakundea Vital Fundazioa bihurtuta, hitzarmenak sinatu dira ELAko gaixoei errehabilitazio eta laguntza integrala emateko programak garatzeko.